

Hilero hitzaldi baten analisia, 'Gara' egunkariko 'Gaur8' astekarian

2015/01/31

Hilero hitzaldi baten analisia egiten du Beñat Zamalloa Akizuk Gara egunkariko Gaur8 astekarian. Jon Sarasuak euskal kulturaz eta Iñigo Ibarra (Ander Lipus) euskal antzerkigintzaz egindako hitzaldienak argitaratu dituzte orain arte. Hile honetako analisia Mondragon Unibertsitateko irakasle den Larraitz Ariznabarretak exilioaren gainean egindako hitzaldiari buruzkoa da. 'Exilioa Po(e/ii)tiko(a) da?' izenburudun hitzaldia egin zuen Ariznabarretak, eta 'Ez zen garai elkorrik zulo beltzean' izenburuarekin idatzi du analisia Zamalloak.



Larraitz Ariznabarreta irakaslea hitzaldiko une batean.